

Engraxitik Garazira

*Izenen misterioa
Nafarroan*



Universidad
de Navarra

EUSKAL HIZKUNTZA
ETA KULTUR KATEDRA

Gobierno
de Navarra



Nafarroako
Gobernua

Gida hau Ana Zabalza Seguín-en (zuz.) *De Engracia a Garazi. El misterio de los nombres en Navarra* (Zizur Txikia, Thomson Reuters Aranzadi, 2018) liburuko edukien egokitzapen bat da. Liburua Lehen Hezkuntzako eta DBHko irakaskuntzan erabiltzen da.

Egileak:

Ana Zabalza Seguín
Demetrio Castro
Mikel Gorrotxategi
José Luis Ramírez Sádaba
Peio J. Monteano Sorbet
Andoni Esparza Leibar
Andres Iñigo
Paskual Rekalde

Egokitzapen pedagogikoa:

María Ángeles Sánchez-Ostiz
Helena Moro Cano

Euskararako itzulpena:

Amaia Apalauza

Diseinu grafikoa:

Jokin Pagola

Proiektuaren zuzendaria:

Cátedra de Lengua y Cultura Vasca.
Universidad de Navarra

Babeslea:

Gobierno de Navarra

I. Sarrera

Izenez inguratuta bizi gara: gutako bakoitzak ponte-izen bat (edo gehiago) eta abizenak ditu, baita gure guraso, senide eta aitona-amonek ere; eta halaber izena dute bizi garen kaleak, auzoak, hiriak, probintziak, autonomia-erkidegoak, herrialdeak, kontinenteak... Izena dute gure animaliek, eta dendek, marka komertzialek, kiroltalde eta -zelaiek, aireportuek, ikastetxeek... Gizakiok izena eman diegu elementu geografikoei: mendiak, sumendiak, ibaiak, golko eta badiak, itsasoak, ozeanoak, eta baita zubiak, iturriak eta lur-azalera zeharkatzeko eginiko orotariko eraikuntzak ere. Planetek eta galaxia batzuek ere badute izena. Badira izen zaharrak eta badira modernoak ere; egokiak eta ez hain egokiak; batzuek dagoeneko existitzen ez diren errealitateak izendatzen dituzte; beste batzuetan, izen berriak asmatu behar izan dira zenbait errealitate izendatzeko.

Gida honetan, Nafarroako historian zeharreko pertsona-izenei emanen diegu arreta. Izenek eta izenok esleitzeko eta transmititzeko moduek sustrai sakonak dituzte iraganean, baina, hala ere, denborarekin aldatzen dira. Pertsonentzat, ondasun unibertsal –mundu guztiak badu bere izena–, nahitaezko eta doakoa da. Zentzu hertsian balio materialik ez duen arren, ondare immaterialaren ataltzat har daiteke izena, baita haren esleipen- eta transmisio-ezaugarriak ere. Lan honetan, hiru izen mota aztertuko ditugu: ponte-izenak, abizenak eta etxe-izenak.

Hitz gakoak

- **ONDARE IMMATERIALA:** UNESCOren arabera, kultura-ondarea ez da mugatzen monumentu eta objektu-bildumetara, haren barnean baitira bizirik dauden tradizio edo adierazpideak ere, gure arbasoengandik jasoak eta gure ondorengoei transmitituak, hala nola ahozko tradizioak edo erabilera sozialak. Nahiz eta kultura-ondare immateriala hauskorra den, faktore garrantzitsua da gero eta gehiago zabaltzen ari den globalizazioaren aurrean kultura-aniztasunari eusteko. Beste erkidego batzuetako kultura-ondare immateriala ulertzeak mesede egiten dio kulturen arteko elkarrizketari, eta beste bizimodu batzuekiko errespetua sustatzen du.
- **ONOMASTIKA:** izen bereziak, izendatze-ekintza eta izendapen-sistemak ikertzen dituen hizkuntzalaritza-adarra..
- **TOPONIMIA:** onomastikaren azpiatala, toki-izenez arduratzen dena. Bi multzo bereizten dira: toponimia nagusia, zeina jendea bizi den tokiei baitagokie; eta toponimia txikia, zeina beste toki, inguru edo udal-barruti batzuk izendatzeko erabiltzen baita.
- **OIKONIMIA:** toponimia txikiaren barneko adarra. Etxe-izenen azterketari dagokio.
- **ANTROPONIMIA:** pertsona-izenen jatorria eta esanahia ikertzen ditu.
- **HOMONIMIA:** homonimoaren nolakotasuna. Pertsona edo gauza batez ari garelarik, beste baten izen bera duena.

Azalpena

Izenek, hitzez adierazten diren heinean, badute izaera linguistiko bat. Izenen bitartez, gizarte bateko banakoak identifikatzen ditugu. Haietako asko toki jakin batean sortzen dira, lurralde edo hizkuntza jakin bati lotuta. Izen guztiak garrantu egiten dira denborarekin; pertsona edo toki baten ibilbidearen parte dira, eta, horrenbestez, errealitate horiekin lotuta egon ohi dira. Izenek naturako espezieak identifikatu eta sailkatzeko balio digute, eta, are, artelanak berak ere beren egileen izenaren edo abizenaren bitartez izendatzen dira.

Izenak aztertzea interesgarria da hala hizkuntzaren eta historiaren arloetan nola natura- eta gizarte-zientzietan eta artean. Hala, izenen errealitatea hainbat ikuspegiatik landu daiteke. Horretaz gainera, kontuan hartzen badugu izen bat izatea eta izendatua izatea gizaki ororen ezaugarria dela, zaila da zehaztea norentzat egina den gida hau.

Curriculum ofizialean, gai honek badu toki espezifikoa DBHko 2. mailako Geografia eta Historiaren arloan, baina aurreko ikasmailetan ere landu daitezke gida honetan azaltzen diren zenbait gai, ikasleen adinera egokiturik.

Lehen Hezkuntzan, onomastikaren gaiarekin zuzenki loturiko arloak Gizarte Zientziak eta Hizkuntza dira; DBHn, Geografia eta Historia (2. mailan), eta Literatura (3. mailan). Bestalde, DBHko 4. mailako Latineko irakasleek ere gida honetan aurkituko dituzte curriculumeko zenbait eduki modu berritzaile eta esanguratsu batean lantzeko materialak.

Datozen ataletan, LOMCEn indarrean diren eta ondare onomastikoarekin zerikusia duten edukiak, ebaluazio-irizpideak eta ikasketa-estandarrak aurkeztuko ditugu, maila orokorrekoak eta Nafarroa mailakoak, bai Lehen Hezkuntzakoak, bai DBHkoak.

LEHEN HEZKUNTZA		
GIZARTE-ZIENTZIAK		
Lehen Hezkuntzako 5. maila		
Edukiak	Ebaluazio-irizpideak	Ikasketa-estandarrak
1. SAILA EDUKI KOMUNAK		
<p>Landuko den gaiari buruzko informazioa biltzea zenbait iturri baliatuz (zuzenekoak eta zeharkakoak).</p> <p>Informazio- eta komunikazio-teknologiak erabiltzea informazioa bilatzeko eta sailkatzeko, eta ondorioak ateratzeko.</p>	<p>1. Informazio zehatza eta esanguratsua lortzea aurretik zehazturiko gertaera edo fenomenoei buruz, zenbait iturri baliatuz (zuzenekoak eta zeharkakoak).</p> <p>2. Informazio- eta komunikazio-teknologiak erabiltzea gizarte-zientziei buruzko informazioa lortzeko eta edukiak adierazteko.</p>	<p>1.1. Bilatzen, sailkatzen eta antolatzen du informazio zehatza eta esanguratsua; aztertzen du; ondorioak ateratzen ditu; gogoeta egiten du egindako prozesuaz; eta ahoz eta idatziz komunikatzen du.</p> <p>2.2. Aztertzen ditu gaiarekin loturiko informazioak, eta erabiltzen ditu taulak, irudiak, grafikoak, eskemak, laburpenak, eta informazio- eta komunikazio-teknologiak.</p>
3. SAILA GIZARTEAN BIZI		
<p>Ikasleak, besteak beste, Nafarroako eta Espainiako populazioa ikasiko ditu: espazioaren banaketa eta bilakaera, migrazio-mugimenduak eta landa-eremuko exodoak.</p>	<p>9. Espainiako populazioaren migrazio-mugimenduak aztertzea.</p>	<p>9.1. Aitortzen du Nafarroako, Espainiako eta gure inguruneko munduko migrazioen garrantzia.</p> <p>9.2. Azaltzen du landa-eremuko exodoa, Europarako emigrazioa eta emigranteak gure herrialdera etortzea.</p>
4. SAILA DENBORAREN AZTARNAK		
<p>Erdi Aroa. Penintsulako erresumak. Inbasio germanikoak eta erresuma bisigodoa.</p> <p>Nafarroako Erresumaren osaera, hedadura eta bilakaera. Erdi Aroko populazioaren ezaugarri sozioekonomikoak.</p>	<p>1. Espainiako Erdi Aroko historiako funtsezko gertaerak identifikatzea gertaerok espazioan eta denboran kokatuz.</p>	<p>1.2. Espazioan eta denboran kokatzen ditu Nafarroako historiako funtsezko gertaerak eta Iberiar Penintsulako Erdi Aroko erresumak.</p>

GAZTELANIA ETA LITERATURA

Lehen Hezkuntzako 6. maila


4. SAILA HIZKUNTZAREN EZAGUTZA

<p>Hitz motak ezagutzea eta hitzak komunikazio-egoera jakinetan erabiltzeari buruzko azalpen gogoetatsua egitea (izena, aditza, adjektiboa, preposizioa, adberbioa, juntagailuak, izenordainak, artikulua, interjekzioak).</p> <p>Hitz mota bakoitzaren ezaugarriak eta erabilera.</p> <p>Ortografia: ortografia-arau oinarri-zkoen erabilera.</p> <p>Izenaren eta izen-sintagmako gainerako osagaien arteko loturak aitortzea eta gogoetaz behatzea.</p> <p>Espainiako eleaniztasunaren gaineko ezagutza orokorra izatea, eta norbera aberasteko modutzat eta gure ondare historiko eta kulturaren erakusgarritzat hartzea.</p>	<p>1. Hizkuntzaren egiturari, gramatikari (kategoria gramatikalak), hiztegiari (hitzen eta eremu semantikoen eraketa eta esanahia) eta ortografia-arauei buruzko oinarriko ezagutzak aplikatzea, komunikazio eraginkorragoa lortzeko.</p> <p>2. Hizkuntza-trebetasunak eta -konpetenziak garatzea hizkuntzaren erabileraren bidez.</p> <p>5. Hezkuntza-programa digitalak erabiltzea zereginak egiteko eta ikasketan aurrera egiteko.</p> <p>6. Espainiako eta gaztelaniaren hizkuntza-aniztasunaren berri izatea, kulturalki aberasteko iturri den aldetik. Espainian hitz egiten diren hizkuntza eta dialektoak, eta Amerikako gaztelania errespetatzea.</p>	<p>1.1. Hizkuntzan duten funtzioaren arabera ezagutzen eta aitortzen ditu kategoria gramatikal guztiak: izena aurkeztea, izena ordezkatzeko, izenaren ezaugarriak adieraztea, ekintzak edo egoerak adieraztea, hitzak edo esaldiak lotzea edo erlazionatzea, eta abar.</p> <p>2.2. Ezagutzen ditu hitz konposatuak, aurrizkiak eta atzizkiak, eta gai da hitz eratorriak sortzeko.</p> <p>5.1. Ikasketaren babes eta errefortzu gisa erabiltzen ditu hezkuntza-programa digitalak.</p> <p>Ezagutzen eta balioesten ditu Espainiako hizkuntza-aniztasuna eta Amerikako gaztelania.</p> <p>6.2. Ezagutzen eta identifikatzen ditu Espainiako hizkuntza ofizialen ezaugarri garrantzitsu batzuk (historikoak, soziokulturalak, geografikoak eta linguistikoak).</p>
--	--	--

DBHKO 2. MAILA		
GEOGRAFIA ETA HISTORIA		
Edukiak	Ebaluazio-irizpideak	Ikasketa-estandarrak
3. SAILA. HISTORIA		
<p>Iberiar Penintsula: erromatarren aurreko herriak eta Hispania erromatarra. Erromanizazio-prozesua.</p> <p>Erdi Aroa: Erdi Aroaren kontzeptua eta haren azpiaroak (Goi Erdi Aroa, Tarteko Erdi Aroa eta Behe Erdi Aroa); Erromatar Inperioaren «beheraldia» Mendebaldean: banaketa politikoa eta inbasio germanikoak.</p>	<p>6. Erromatar gizartearen, ekonomiaren eta kulturaren ezaugarri nagusiak karakterizatzea.</p> <p>8. Loturak egitea iraganeko Hispania erromatarren eta gaur egungoaren artean.</p>	<p>6.1. Mapa bat egiten du Erromaren zabalkundearen aroei buruz.</p> <p>8.2. Aztertzen ditu gaur egun bizirik dirauten erromatar kulturaren ondarearen adibideak.</p> <p>9.1. Ulertzen du zer diren «erromanizazioa» eta esparru geografikoaren araberako mailak.</p> <p>11.1. Erabiltzen ditu iturri historikoak eta ulertzen du zer muga dauden iraganaz idazteko.</p>
NAFARROA		
Baskoiak eta erromatarrak	17. Baskoien lurraldeko erromanizazio-prozesua ulertzea. Erromatar aztarna nagusiak identifikatzea.	17.1. Azaltzen du zein den -ain amaiera duten herri-izenen jatorria eta kokatzen ditu mapa batean.

DBHKO 3. MAILA		
GAZTELANIA ETA LITERATURA		
Edukiak	Ebaluazio-irizpideak	Ikasketa-estandarrak
3. SAILA. HIZKUNTZA-EZAGUTZAK		
<p>Kategoria gramatikalak ezagutzea, erabiltzea eta azaltzea: preposizioa, juntagailua eta interjekzioa.</p> <p>Hitzen osagaiak ezagutzea, erabiltzea eta azaltzea. Hitzak eratzeko prozedurak.</p>	<p>2. Zenbait kategoria gramatikale-tako hitzen egitura ezagutzea eta aztertzea.</p> <p>3. Hitzen esanahia ulertzea alderdi guztietatik, erabilera objektiboak eta subjektiboak ezagutu eta bereizteko.</p>	<p>2.1. Ezagutzen eta azaltzen ditu hitzen osagaiak: erroa eta afixuak.</p> <p>2.2. Azaltzen ditu hitzak eratzeko prozedurak eta bereizten ditu konposatuak eta eratorriak.</p>

DBHKO 4. MAILA		
LATINA		
Edukiak	Ebaluazio-irizpideak	Ikasketa-estandarrak
7. SAILA. LEXIKOA		
<p>Latinetik hizkuntza erromantzeetarako bilakaera fonetiko, morfologiko eta semantikoari buruzko oinarrizko nozioak.</p> <p>Ondare-hitzak eta kultismoak.</p>	<p>2. Ikasleen hizkuntzetako latinezko elementu lexikoak identifikatzea.</p> <p>3. Ondare-terminoak eta kultismoak identifikatzea eta bereiztea.</p> <p>4. Latinaren bilakaera fonetikoaren oinarrizko arauak ezagutzea eta latinezko hitzen bilakaeran aplikatzea.</p>	<p>2.1. Identifikatzen du bere hizkuntzako oinarrizko lexikoko hitzen etimologia.</p> <p>2.2. Identifikatzen eta bereizten ditu kultismoak eta ondare-terminoak, eta lotzen ditu jatorrizko terminoarekin.</p> <p>4.1. Latinezko terminoak gaztelaniara bihurtzen ditu arau fonetikoak aplikatuz.</p>



II. Ponte-izena

Izendatzea

Teorian, pertsona batek edozein hizkuntzatan har ditzakeen izenen kopurua infinitua da; hala ere, ekonomia onomastikoaren izenean, praktikan, pertsonak izen gutxi hartu ohi dituzte.

Denborarekin, izena jartzearen inguruko faktoreak aldatu dira (noiz erabaki jaioberriaren izena, nork, zeren arabera); antzina ere, talde sozialaren eta eskualdearen arabera aldatzen ziren faktoreok. Kultura askotan, transmisio-arau batzuen arabera eman izan zaie izena pertsonari historian zehar. Aro garaikidean, norberaren gustuak eta moda lehenesten dira, gero eta gehiago, ohitura tradizionalen gainetik.

Ibilbide bat Nafarroako izenen historian zehar

Nafarroako pertsona-izenen historiaren ezaugarriak Espainiako eta Europako beste toki batzuetan ere errepikatzen dira. Oinarri autoktono ez-homogeneo baten gainean, erromanizazioak bere arrastoa utzi zuen, aurrekoa ordezkatzuz edo, batzuetan, aldatuz edo egokituz. Kristautze-garaian, santuenganako debotzioa zabaldu zen, eta bataio bidez Elizan sartzen zirenek haien izenak hartzen



zituzten. Nolanahi ere, lehen mendeetako santuek izen paganoak izan ohi zituzten (adibidez, *Saturnino* eta *Fermin*); III. mendetik eta batez ere IV.etik aurrera hasi ziren aldarrikatzen jaioberriei apostoluen, martirien edo Eskritura Santuko izenak jarri behar zitzaizkiela, zeruko babesle eta bertuteen eredu ziren heinean.

ERAGIN KLASIKOA: LURRALDEAN ERROTURIKO IZENAK

Erromatarren garaia: Nafarroan, izen greko-latindarrak dokumentatu dira, eta haietako batzuek luze iraun dute ponte-izen, abizen edo toponimo gisa. Besteak beste, aipagarriak dira *Aeminianus*, *Antonia*, *Armentarius*, *Felicio*, *Firmus*, *Flavianus*, *Licinianus*, *Marcellina*, *Paternus*, *Placidus*, *Saturninus*, *Sempronia*, *Severus* eta *Valerius*. Onomasitika hori autoktonoarekin batera erabiltzen zen,

Nafarroako Erresuman, **Behere Erdi Aroan**, errege-familiak tradizioari jarraitzen zion printze eta infanteei izena esleitze orduan: adibidez, XIV. mendearen amaieran eta XV.aren hasieran, oinordekoari *Carlos* ezartzen zitzaion, eta gainerako seme-alabek aitona-amonen eta izeba-osaben izenak hartzen zituzten. Sasiko umeetan, berriz, askatasun eta fantasia handiagoa zegoen: *Lantzelot*, *Tristan* edo *Godofre*.

hau da, euskarazkoarekin. Bi hizkuntzen arteko eraginen ondorioz, zenbait fundusen jabeen latindar izenak euskal ahoskerara egokitu ziren.

Izen haietako batzuek toponimo gisa iraun dute, hala nola *Arellano* (< *Aurelianus*), *Astrain* (< *Asterius*), *Zenborain* (< *Sempronianus*), *Labio* (< *Flavianus*), *Lukin* (< *Lucianus*), *Gendulain* (< *Centullus*), *Markalain* (< *Marcellianus*), *Muniain* (< *Munianus*) edo *Paternain* (< *Paternus*). *Barañain* izenaren kasuan, Caro Barojak esan zuen posible zela *Veranianus* edo *Verinianus* izenetatik eratorria izatea.

Nafarroako gaur egungo izen erabilienetan ere geratzen dira jatorri askotarikoko antroponimia zaharraren arrastoak:

- Izen grekoak: *Sofia, Irene, Helena*.
- Erromatar nominak: *Luzia, Julia, Klaudia, Balere, Mario, Sergio*.
- Erromatar cognominak: *Laura, Adrian, Martin*.
- Praenominak: *Marko*.
- Hebrear tradiziokoak: *Sara, Ana, Marta, Maria, Daniel, Mikel, Dabid, Andres, Joan, Lukas, Mateo*.
- Mitologiaren eta literaturaren garrantzia zenbait izenen iraupenean: *Alexandro*.
- Tradizioan gizonenak ziren izenen feminizazioa: *Paule, Martina, Danele, Adirane*.

Gero, herri germanikoak iritsi eta **Erromatar Inperioa erori** zen, eta germanikoek beren onomastika propioa zuten. Laster zabaldu eta latinizatu zen; adibidez, Ferdinandus edo Bernardus.

ERREGE-ERREGINAK, MONJEAK, NEKAZARIAK

Erdi Aroa: egarai hartan gehien erabiltzen ziren izenei buruzko iturrietako bat Leireko monasterioko dokumentazioa da. Horregatik, dokumentu horietako izenei Leireko izenak esaten zaie. Izen horietako batzuek latindar jatorria dute (*Sanctius, Munius, Fortunius, Lupus, Auriolus* edo *Centullus*); beste batzuk autoktonoak dira (*Belasco, Énneco, Garcés, Semeno, Toda* edo *Urraca*); badira hain ezagunak ez direnak ere (*Andregoto* edo *Garbisso*), eta beste batzuk (*Aurra, Belza, Berria, Gaizcho, Landerra, Zaharra* edo *Zuria*).

Leireko izen multzoan ikusten da nola iraun duten izenok zenbait funtziotan. Pertsona-izen gisa, adibidez, gaur eguneraino iraun dute izen hauek: *Antso* (< *Sanctus*), *Oriol* (< *Aureolus*), *Eneko* (< *Énneco*) eta *Martin* (< *Martinus*). Beste batzuek abizen gisa iraun dute (Santxo, Fortun, Aznar, Oriol, Iñigo, Martin, Gartzia); eta badira patronimikoak sortu dituztenak ere: *Santxez/Sanz/Saintz, Aznarez* edo *Enekoitz*, baita *Munioitz/Muñoz* ere. Multzo honetan, Iruñeko le-



Énneco izenaren bilakaera bitxia da. Erdi Aroan, silaba azentuduna markatzeko zeinu diakritikorik ez zegoenez, *Enneco* idazten zen; fonetikaren berezko arauen bilakaeraz, erromantzean, *Íñigo* bilakatu zen. Forma hori asko zabaldu zen Erdi Aroan, eta pertsonaia oso ezagunek hartu zuten, hala nola Santillanako markesak (Íñigo López de Mendoza) edo Jesusen Konpainiaren sortzaileak (Íñigo López de Loyola). Azken horrek, Hispaniar Monarkiatik kanpo izenak arazoak sortzen zizkiola ikusirik, aldatu eta *Ignazio* izena hartu zuen, antzekoa baitzen eta, gainera, Antiokiako San Ignazio baitzekarkion gogora. Dena den, *Íñigo* eta *Ignazio* izenek ez dute lotura etimologikorik: *Ignazio* latineko *Egnatius* izenetik dator. Tras su canonización en 1622an kanonizatu ondoren, haren izena asko hedatu zen, bai gizon-izen gisa, bai –neurri txikiagoan– emakume-izen gisa

Hala, 1897an, Sabino Arana Goirik euskal onomastika-zerrenda bat argitaratu zuen, eta *Íñaki* izena ere sartu zuen: *Ignazio* oinarri gisa hartu, *c*-ren ordez *k* herskari ahoskabea aldatu, eta *gn* > *ñ* bihurtu zuen.

Hala, *Énneco* izenak, zeina aurrelatindarra baita eta etimologia ez oso argikoa, lau izen eman ditu: jatorrizkoaz gainera, *Íñigo*, hau da, jatorrizkoaren bilakaeraz sortua (asko hedatu da izen eta abizen gisa); *Ignazio*, latindar tradiziokoa eta *Íñaki*.

hen errege-erreginak ageri dira: Eneko Aritza, Gartzea Enekoitz, Orti Garzeitz. Aurrerago, Champagneko etxea iritsi zenean, beste izen batzuk agertu ziren, hala nola *Teobaldo*.

Antroponimia ikertu nahi duenarentzat, oso iturri interesgarriak dira *suen liburuak*: toki bateko etheen zerrenden bildumak izaten ziren, zerga-bilketarako tresna gisa erabiliak.

JOAN, PETRI ETA MARIA: ARO MODERNOA (XVI. MENDETIK XVIII. MENDERA)

Aro Modernoan, gero eta idatzizko iturri gehiago dago, eta haiei esker dakigu *Joan, Martin, Mikel* eta *Petri* zirela mutil-izen ohikoenak eta *Maria, Joana, Katalina* eta *Graziana* (eta haren aldaerak) neska-izen ohikoenak. Bestalde, bi izen ohikoenak, Joan eta Maria, gizon eta emakumeen % 25i zegozkien, hurrenez hurren. Hispaniar monarkiaren gainerako lurraldeetan eta Europa kristauan ere Nafarroako egoera bera aurkitu daiteke.

Nafarroa modernoko dokumentazioan, badira gaur egungo ikuspegitik harriarriak diren ohiturak; esate baterako, senide batek baino gehiagok izen bera izatea, are biak bizirik egonda ere, edo emakumeek gizon-izenak izatea aurretik Maria jarrita, hala nola *Maria Martin, Maria Mikel* edo *Maria Joan*. Aldaera gutxi izatearen eta are errepikatzearen arrazoiak hauek izan daitezke: idatzizko kulturarako aukera mugatua izatea, bizi-itxaropen laburra izatea edo oinordeko bakarraren sistema; sistema hori nagusia zen Nafarroa gehienez, eta, hortaz, seme-alaba batek, familiaren etxea utziz gero ezkontzeko edo independizatzeko, etxe horretako partaide izateari uzten zion. Horretaz gainera, ez dugu ahaztu behar iritsi zaigun dokumentazio guztia gaztelaniaz idatzita dagoela, nahiz nafar asko ez ziren hizkuntza horretan mintzatzen –euskaledun elebakarrak baitziren–, eta horrek eragina izan lezake izenetan: segur aski, etxean, familia-deiturak erabiliko zituzten, ez izen ofizialak. Frantziako eskualde batzuetan, adibidez, dokumentatu da senide guztien artean zeukaten mailaren arabera deitzen zieten seme-alabei: nagusia, erdikoa, txikia.

Beraz, XVI. mendearen lehen erdialdearen laburpen bat eginez, esan genezake erreperitorio onomastikoa txiki samarra zela, bai izen maskulinoetan, bai femeninoetan.



1907an, Espainiako errege Alfontso XIII. aren seme zaharrenari izen hauekin bataiatu zuten: *Alfontso Pio Cristino Eduardo Frantzisko Gilen Karlos Henrike Eugenio Fernando Antonino Benantzio*. Zerrenda luze horretan (aitaren, aitona-ren, aitabitxiaren, osaben eta jaiotze- eta bataio-egunen santuen izenek osatua), jatorri greko-latindarreko izenak (*Pio, Cristino, Frantzisko, Eugenio, Antonino* eta *Benantzio*) eta jatorri germanikokoak (*Alfontso, Eduardo, Gilen, Karlos, Henrike* eta *Fernando*) nahasten dira.

SANTUEK HEROI ETA ERREGE-ERREGINAK ORDEZKATU ZITUZTENEOA

Trentoko Kontzilioko dekretuen ondorioz, egoera nabarmen aldatu zen (1563an bukatu zen). Dekretuon arabera, Eliza Katolikoan bataiaturikoek – hispaniar monarkiako aukera bakarra zen– santu kanonizatu baten izena eraman behar zuten, izendunaren bizitza babesteko. Hala, errege-erregina eta heroi literarioen ordeztu, santuek hartu zuten haien lekua, eta, zerrenda onomastikoa berritu arren, aldaera kopurua ez zen askorik aldatu. Inposaturiko izenei zegozkien santuak ezin hartu ziren bizitza eredugarri gisa bataiatuentzat; izan ere, kasu askotan, kristautasunaren lehen mendeetan edo Erdi Aroan bizi izandakoak ziren: XIV. eta XV. mendeetan ez zen ia kanonizaziorik egon. XVII. mendearen hasieran, Kontrarreformako santuak aldarera igo ziren (besteak beste, Ignazio Loiolakoa, Frantzisko Xabierkoa eta Santa Teresa Jesusena), eta, horri esker, haien izenak zabaldu eta ospetsu bihurtu ziren, baita haiek sustaturiko debozioak ere: arrakastatsuenak, beharba-

da, *Jose* eta *Josefa* izenak izan ziren, ia ez baitziren erabiltzen harik eta Santa Teresak Mariaren senarrarenganako debozioa hauspotu zuen arte; Jesusen familiako kideen izenak ere asko hedatu ziren, hala nola *Joakin* eta *Ane*.

Hispaniar monarkiaren –eta, horrenbestez, Nafarroaren– ezaugarri berezi bat Testamentu Zaharreko pertsonaien izenak saihestea izan zen, odol garbiaren obsesioak odol juduaren edozein zantzu arbuiatzera eraman baitzituen garai hartan. Adibidez, ez zegoen *Abraham*, *Isaak*, *Moises*, *Dabid*, *Sara*, *Rebeka* edo *Rakel* izeneko inor; salbuespen bakarra *Susana* zen, eta ez zen oso ohikoa.

Barrokoaren sorrera hagitz nabarmena da ponte-izenetan, izen konposatu ugari baitzegoen: adibidez, *Maria Josefa*. Beraz, izenen errepertorioa handitu ez, baina gero eta aldaera gehiago zegoen, eta, neurri batean, homonimiak behera egin zuen.

ARO GARAIKIDEA: ARAU BERRIAK, IZEN BERRIAK?

XIX. mendean. aldaketak azkarrago gertatu ziren, bai bizi- eta lan-baldintzetan, bai alfabetizaziorako aukeran, hori guztia hazkuntza demografiko handiko testuinguru batean. Segur aski mende hartan orokortu zen haurrei beren jaioteguneko edo bataio-eguneko santuaren izena jartzea; izan ere, santuen izendegia nabarmen zabaldu zen, eta apaizentzat errazagoa zen izendegiok eskuratzea. Hala, corpus onomastikoa zabaldu bai, baina izen ezohikoak agertu ziren, hala nola *Sinforosa* edo *Zeledonio*.

XX. mendean, II., Errepublikaren garaian, guraso batzuek *Libertad*, *Socialismo* edo *Anarquía* izenak paratu zizkieten beren seme-alabei. Franco jeneralaren diktaduran, galarazita egon ziren gaztelaniazkoak ez beste hizkuntzetako izenak; zenbaitetan, Gerra Zibilaren aurretik jarritako izenak itzultzeraz edo egokitzeraz ere behartu zuten jendea. 1977tik aurrera, Espainiako legeek onartu zuten beste hizkuntzetako izenak erabiltzea. Euskal izenak, beraz, orokortzen hasi ziren, nahiz eta Gerra Zibilaren aurretik ere baziren bakar batzuk, gutxi eta zailtasun handiz jarriak denak ere. 2002an, Euskaltzaindiak izendegi bat argitaratu zuen, egoera argitzeko, irizpideetan zalantza ugari baitzegoen. Bestalde, mass media globalizazioaren eraginez, jatorri anglosaxoiko izenak ugartu ziren; esate baterako, *Kevin* edo *Jennifer*.

2017an Nafarroan jaiotako haurren izenik ohikoenen artean, erdiak baino gehiago euskal izenak dira. Mutikoen izen ohikoenak hauek izan dira, hurrenkera honetan: *Julen, Martin, Iker, Aimar, Ander, Pablo, Hugo, Ibai, Lucas eta Mikel*. Nesken-izenak, berriz, honako hauek: *Irati, Luzia, Ane, Sofia, Nahia, Noa, June, Laia, Alba eta Sara*.

Beraz, XX. mendeko eta orain arteko XXI.eneko laburpen gisa, esan genezake gero eta gehiago eta azkarrago nagusitu direla gustuak, moda, emulazio soziala, berezia izateko nahia, autoktonoaren goraipamena eta kanpoko eragina (batez ere anglosaxoia), transmisio-aukeren eta -arauen gaintetik.

Hiztegia

Leireko izenak: Leireko monasterioko dokumentazioan ageri diren izenak.

Suen liburukak: zergak ordaindu behar zituzten familia-buruen zerrendak.

Jarduerak

1. Egin galdera hauek ikasleei: Nola duzu izena? Baduzu izen bat baino gehiago? Zein da zure izenaren jatorria? Ba al du esanahirik? Zergatik jarri zizuten izen hori? Nork aukeratu zuen? Zerbaitengatik aldatu al zuten hasieran pentsatua zuten izena? Badago zure familian zure izen bereko beste inor? Baduzu zure izen bereko arbasorik?
2. Zerrendatu zure familiako ponte-izenak: birraitona-amonak, aitona-amonak, gurasoak, izeba-osabak, zu zeu eta zure senide eta lehengusu-lehengusinak. Zer ondorio aterako zenuke?
3. Bilatu zein diren 1930eko eta gaur egungo izenik erabilienak Nafarroan. Horretarako, bilatu informazioa Estatistikako Institutu Nazionalaren webgunean (www.ine.es). Esan zer izen motak diren, eta alderatu Espainiako gainerakoekin.

Nafarroako izenik erabilienak

1930ean:

Emakumeak: *María Carmen, María Pilar, María Teresa, María Jesús, Carmen, María Ángeles, Ana María, María Luisa, María Dolores, María, Pilar, Josefina, Teresa, María Josefa, María Rosario, María Isabel, María Concepción, Margarita, Isabel, Juana.*

Gizonak: *José, Ángel, Antonio, José Antonio, Francisco, Francisco Javier, Javier, Pedro, Luis, Miguel, Juan, Félix, Manuel, Jesús María, Miguel Ángel, Joaquín, Santiago.*

4. Ezagutzen al duzu -ain bukaerako toki-izenik? Nondik etorria da, zure ustez? Kokatu Nafarroako mapa batean, eta atera ondorioak.



III. Abizena

Abizena ez da izena bezain zaharra: dirudienez, Erdi Aroan eta Aro Modernoaren hasieran, oraindik ere abizenik ez zen existitzen berez. Ponte-izena ez bezala, abizena jaso egiten da, ez da aukeratzeko. Bigarren atal honetan, abizena nola eta noiz sortu zen, nondik hartu zen eta nola transmititu zen aztertuko dugu.

Gaur egun, Espainia da Europan homonimia altuena duen herrialdea; alegia, badira izen-abizen berberak dituzten pertsona anitz: *José Sánchez Martínez* edo *Carmen López Pérez*, adibidez, Roberto Rodríguez Díazek *La población española* [Espainiako populazioa] tesian ikertu duen bezala. Hortaz, esan daiteke abizen kopurua urria dela nolabait: gure herrialdean, badira 0,656 abizen mila biztanleko; Italian, 4,406 dituzte, eta, Holandan, 6,046.

1870ean, estatuak herritarrak segurtasunez identifikatzeko beharrak bultzaturik, Espainian Erregistro Zibila ezarri zenean –liberalismoaren ondorio praktikoetako bat–, legegileek ezarri zuten jaioberriak bi abizenekin erregistratu behar zirela nahitaez: lehenbizi, aitaren abizena, eta, ondoren, amarena. Hala, partzialki bada ere, homonimiaren arazoa arintzea lortu zuten. Gure NANean edo pasaportean, aita-amen izenak eta jaioterria eta -data ere ageri dira, eta, datuokin guztiokin, inongo zalantzarik gabe identifika daiteke pertsona bat.

Nafarroako abizenak: gaur egungo egoera

Estatistikako Institutu Nazionalaren datuen arabera, Nafarroan jaiotakoen abizen ugariak honako hauek dira, hurrenkera honetan: *Martínez, García, Jiménez, Pérez, Fernández, López* eta *González*. Zazpi abizen errepikatuenak dira, estatuko gainerako probintzietan bezala, nahiz maiztasunaren hurrenkera aldatzen den. Dena den, Nafarroan, are handiagoa da askotarikotasuna eta sakabanaketa, Aragoian (salbu Zaragoza probintzian), Katalunian (salbu

Bartzelona probintzian) eta Gipuzkoan bezala; alegia, beste probintzietan baino jende gutxiagok ditu abizenok. Adibidez, Nafarroako abizenik ohikoena *Martínez* da, eta 1.000 nafarretik 19,4k daukate; Errioxan, aldiz, lehen postuan dago abizen hori, baina milatik 43,7k daukate, eta, Murtzian, han ere lehen postuan egonik, milatik 65,9k.

50 abizen ohikoenen artean, Nafarroan badira 16 abizen beste inongo probintzietan agertzen ez direnak postu horretan, eta, horietaz gainera, badira beste 5 mugako herrietan bakarrik ageri direnak, haietariko batzuk euskal abizen oso hedatuak, hala nola *Etxeberria* eta *Agirre*. Zortzigarren abizen ohikoena ere, *Goñi*, ez dago beste probintzia batzuetako ohikoenen artean.

Nafarroako abizen espezifikook badute, kasu gehienetan, ezaugarri komun bat: toponimikoak dira. Hau da, batez ere tokiak izendatzen dituzte (herri bat edo etxe-orube bat). Espainiako eta are Nafarroako abizen errepikatuenak, berriz, patronimikoak dira, eta filiazioak islatzen dituzte (*Martínez*, *Martinen semea*). Esate baterako, gure erkidegoan, oso hedatuta daude *Uharte* edo *Azkona* abizenak, zeinak herri-izenak baitira.

Abizena bizkar gainean

Gorago esan dugunez, abizenak izenak baino geroago agertu ziren. Badirudi Erdi Aroaren amaierako mendeetan eta Aro Modernoaren hasieran hasi zirela zabaltzen. XVI. mendean, oraindik ere orokortu gabe zegoen abizenen erabilera, eta, askotan, abizenduna leinu nagusi batekoa zela adierazten zuten. Halakoetan, jatorrizko lurra edo etxea izaten da erreferentzia-terminoa. Adibidez, Urtsuako dorretxearen jabeek (Arizkun, Baztan) *Ursua* abizena erabiltzen zuten. Izan ere, oso baliotsuztat jotzen zuten beren ondare immaterialaren zati hori; are, Erdi Aroaren bukaeran, ondoz ondoko bi belaunalditan semerik egon ez zenez, dorretxea oinordetzan hartu zuten emakumeek beren abizena eman zieten beren seme-alabei (baldintza hori jarrita ezkondu ziren), abizena ez galtzeko.

Herritar xeheek ez zeukaten abizenik; hala eta guztiz ere, XVI. mendeko dokumentuetan ikusten da ia beti badutela abizen bat, baina pentsa liteke eskribauak erantsiak izango zirela, nekazari eta artisauek ez baitzuten abizenik erabiltzen. Esate baterako, XVII. mendearen hasierako epaiketa batean, bi artzain gaztek deklaratu zuten: *Martín de Munucek* eta *Joanes de Macayak*. Haiekin batera, Joanes de Suescun Zolinako jauregiko maizter zaharrak ere

parte hartu zuen. Izen guztiok Nafarroa Behereko eta Lapurdiko toki-izenak dira.

Lurra erreferentzia nagusia zen edozein gizarte-taldetako pertsonak identifikatzeko; horrek azaltzen du zergatik dagoen gaur egun Nafarroan erro toponimikoa duten hainbeste abizen. Dena den, Aro Modernora arte ez ziren guztiz finkatu; izan ere, pertsona baten bizitza aldatu ahala, hura izendatzeko moduak ere aldatzen ziren.

Nola eratzen dira abizenak? Nola transmititzen?

Abizen patronimiko ugariak eratzeko, aitaren izena hartzen zen semeei izena emateko orduan: *Fernández* Fernandoren semea zen, adibidez. Ez zegoen, hala ere, arau finkorik, eta semeen izena ez zen beti aitarenetik eratorria izaten: gerta zitekeen, adibidez, familiaren ondare onomastikoa haurrideen artean banatzea eta haurride bakoitzak abizen bat izatea, besteen desberdina. Gainera, batzuetan, haurrideek izen bera izaten zuten; hortaz, zaila da haurri-deok identifikatzea edo haien arteko harremanak ikertzea.

Aro Modernoan, Nafarroako landa-eremuan, batzuetan amaren abizena hartzen zuten seme-alabek, ez aitarena: adibidez, emakume batek ondarea oinordetzan hartzen zuenean. Hala, lurra identitatearen oinarria zenez, seme-alabek etxearen izena hartzen zuten abizen gisa, amarengandik, amak izen hori abizen gisa hartzen baitzuen. XVI. mendean, adibidez, Nagoren (Artzibar) bazen *Enecorena* izeneko etxe bat, eta haren jabea *María de Enecorena* zen. Emakume hura bi aldiz ezkondua zen, eta bi senarrek dotea eraman zuten ezkontzara, Mariak onibarrak baitzeuzkan. Dena den, haien seme-alabak *María* eta *Juan de Enecorena* izenez ziren ezagunak, horixe baitzen ziurtasunez identifikatzeko elementu nagusia. Ez zegoen arau finkorik, baina.

XVI. mendetik aurrera, abizena esanahia galtzen hasi zen, gero eta gehiago: adibidez, *Miguel de Erdózain* izenak ez zekarren nahitaez pertsona hori Erdotzaingoa izatea, baizik eta haren aitaren abizena hori zela. 1870ean, Espainiako estatu liberalak Erregistro Zibila ezartzearekin batera, finkatze-prozesua itxita geratu zen.

Abizenak aukeratzeko eta finkatzeko prozesuan, errege-eskribaua funtsezkoa izan zen, haren eskuetatik pasatuak baitira gorde diren dokumentu gehienak. Pentsa liteke dokumentu batean alde interesdunen datuak idatziz jasotzeko unean ofizial haiek egokienak iruditzen zitzaizkien izenak aukeratzeko

zituztela eta, horrenbestez, beste batzuk baztertzen. Horrek beste gogoeta batera garamatza: Antzinako Erregimenean, pertsonak ez zituzten beren izenak erabiltzen; besteak erabiltzen zituzten, bera izendatzeko edo berari deitzeko. Horrenbestez, pertsona batek beste bat izendatzeko erabiltzen zuen izenak informazioa ematen digu haien arteko harremani buruz. Gaur egun ere bezala, gutako bakoitzak baditugu izen eta goitizen anitz (senideen artean, gurasoak, aitona-amonak, lehengusu-lehengusinak, eskolako kideak, kirol-taldeetako kideak, udako lagunak, bizilagunak...). Desberdintasuna da XXI. mendean bada goela herritarrak erregistratzen dituen estatu bat eta, horrenbestez, badaudela izen ofizial onak. Antzina, aniztasuna oso agerikoa zen, eta ez zegoen izen finko edo nagusirik.

Abizena bizkar gainean

Garrantzitsua da kontuan hartzea Nafarroan ekosistema asko eta askotarikoak biltzen direla eta joera mendialde pobre eta gainezka egindako batetik Erribera zabal batera aldatzea izan dela. Halako lekualdatzeek arrastoa utzi zuten onomastikan, emigratzaileak beren jaioterrien izenarekin ezagutzen baitzituzten beren bizileku berrian, pertsona horiek gaur egun abizentzat hartzen duguna izan ala ez.

Oso urrutitik etorriak ez baziren, etxe-izenaz ezagutzen ziren, espazioa antolatzeke oinarrizko unitatea zen heinean. Hala, erraz ulertzen da Nafarroako gaur egungo berrogeita hamar abizen ohikoenen artean bost oikonimo egotea; haietariko batzuk herrialde osora hedatu dira, gainera: *Etxeberria*, *Iriarte*, *Elizalde*, *Irigoi* eta *Iribarren*. Abizenok hainbeste errepikatzen dira toki askotan izango zirelako halako etxe-izenak.

Urrutitik etorriak baziren, aldiz, haien etxe-izena jakina ez zenez, haien jaioterria erabiltzen zen abizen gisa. Gaur egungo berrogeita hamar abizen ohikoenen artean, sail horretan sartzen dira honako hauek: *Goñi*, *Sola*, *Espartza*, *Armendaritz*, *Uharte*, *Azkona*, *Villanueva*, *Oses*, *Zabaltza*, *Lizarraga*, *Sesma* eta, beharbada, *Torres*.

Sail horren barnean, bereziak dira azienda-transhumantziarekin loturikoak (urtero egiten zuten joan-etorria, Erronkari, Zaraitzu eta Aezkoatik Bardeara). Adibidez, Nafarroako Erdialdean (Pitillas, Santacara), edo Bardearen mugetan (Zarrakaztelu), badira *Garde* edo *Anaut* abizenak; alegia, Nafarroa barneko migrazioek garrantzia izan zuten lurraldearen konfigurazioan.

Nafarroa Beherearen eragina ere aipagarria da. Izan ere, 1527ra bitartean, Nafarroako Erresumaren % 10 osatzen zuen. Hezea eta lurra lantzeko desegokia zenez, XII. mende inguruan Nafarroako Erresumarekin bat egin eta gero, herritarrek Iberiar Penintsulara jo zuten, lur emankorrakoak eta jende gutxiagokoak zirelako, eta horretan, zalantzarik gabe, lagundu zuen erlijio eta hizkuntza bera izateak. Haietariko asko behin betiko geratu ziren Nafarroa Garaian, eta horren lekuko dira gaur egungo abizen nafar asko: *Altzueta, Arbeloa, Armendaritz, Aierra, Txibite, Eleta, Ezpeleta, Ibarrola, Jatso, Lakarra, Landibar, Monjolose, Oses, Sueskun, Iholdi, Zaro* eta beste hainbat. Transhumantziarekin loturiko abizenekin gertatzen den bezala, Nafarroa Beherekoek ere laguntzen dute Nafarroa unitate politiko gisa azaltzen, urrutiko espazioak lotuz ehundu baitzuten lurraldea hango eta hemengo herritarrek.

Datu interesgarria da Erresumako herri jendetsuenek (Iruñea, Tuter, Lizarra, Tafalla, Zangoza) ez zutela abizenik sortu: oso hedadura mugatukoak dira, eta, batzuetan –Tuteran, adibidez–, badira haien homonimoak. Segur aski, emigrazioaren hartzaile izan zirelako gertatzen da hori: hiriotara iritsi, eta beren jaioterriaren izenaren arabera egingo ziren han ezagun, baina, handik kanpora herritar gutxi atera zenez, izenok ez ziren gehiago hedatu. Familia gutxiko herrietan edo hiribildu txikietan, aldiz, abizen asko sortu eta hedatu dira, ez bakarrik Nafarroan eta Espainian, baizik eta baita beste herrialde batzuetan ere: adibidez, *Aristu* (Urraulgoitiko lekua), edo *Urroz*, zeina Nikaraguan oso ohikoa baita (mundu osoan ez dago han baino *Urroz* gehiago), baita Amerikako beste herrialde batzuetan ere.

Batzuetan, eskualdeetatik sortu dira izenak (ez etxe edo herrietatik); adibidez, *Sola*, Nafarroako abizen ohikoenetan hogeigarrena. *Sola* abizena *Soule* izenetik dator (Zuberoa), zeina Nafarroa Beherearen mugan baitago eta euskalduna baita hizkuntzaz zehazki, Ipar Euskal Herriko probintziarik txikiena da. Menditsua eta baztertua, emigratzaile ugari atera ziren handik iraganean, ondoko eskualdeetara (batzuetan, mugaz beste aldera ere bai). *Sola* abizena oso ohikoa da Pirinioekin muga egiten duten probintzietan, hala nola Huescan, eta Katalunian ere ugari dago, bereziki Gironan. Nolanahi ere, ugariena Nafarroan da, bai zenbaki absolututan, bai erlatibotan. Toki haietatik, gero, beste batzuetara joan behar izan zuten zuberotarrek, Mediterraneo aldera batez ere, Estatistikako Institutu Nazionalaren datuetan egiazta daitekeen bezala. Kontua da Zuberoa ez zela egon Nafarroako Erresumaren barnean, eta beharbada horrek azaltzen du *Sola* abizena hedatu izana. Nafarroa Beherea, aldiz, askoz ezagunagoa izango zen. Horretaz gainera, Zuberoan ez zegoen herrigune nabarmenik, salbu Maule, zeinetatik abizena sortu baitzen, batez ere Nafarroan eta Araban.

Beste abizen mota batzuk

Toponimikoekin batera, gaur egun Nafarroan dauden abizenek tipologia klasikoa dute:

- Patronimikoak ugariak dira; filiazio-harremana islatzen dute. Lehenago ikusi ditugu patronimiko nagusiak. Haien artean badago multzo berezi bat, abizen gisa erabilitako ponte-izenena: *Gartzia, Sanz* (*Sanç*-etik eratorria, zeina *Sancho*-ren antzinako forma baita), *Gil, Martin, Alonso, Pascual* eta *Vicente*. Adibide horietako batzuk, abizen gisa espezializatu, eta ponte-izen gisa erabiltzeari utzi zioten; esate baterako, *Gartzia* eta *Gil*.

- Abizen batzuk goitizenetatik datoz, ezizenetatik, ezaugarri fisiko edo moral bati erreferentzia eginez, eta, batzuetan, umore- edo maltzurkeria-kutsua izaten dute. Haiei esker, pertsonak identifikatzen ziren haien izenik jakiten ez zenean edo jakinik ere hura bereizgarria ez zenean. Nafarroan, abizen errepikatuenen artean, badira bi: *Moreno* [beltzarana] eta *Calvo* [burusoila].

- Abizen gutxi batzuek lanbideari edo karguari egiten diote erreferentzia: *Herrero* [arotza] edo *Montero* [basozaina].

- Abizen batzuk herritar izenak dira, hau da, jaioterria adierazten dute: *Navarro* [nafarra].

Hain zuzen, Espainiako abizen ohikoenetako bat da. 21. lekuan dago; 177.979 espainiarrek daukate lehen abizen gisa (hau da, 1.000tik 3,8k), 175.901ek bigarren gisa eta 3.499k lehen eta bigarren gisa. Patronimikoak alde batera utzita, *Moreno* eta *Romero* bakarrik daude haren aurretik.

Espainiako distribuzioak argi uzten du haren jatorria zein den. Izan ere, diagonal bat marraztu liteke Iberiar Penintsula ekialdetik mendebaldera zeharkatuz: Mediterraneoan, Aragoi, Gaztela-Mantxan eta ekialdeko Andaluzian, oso ugaria da. Dentsitate altuena Albaceten dago (1.000tik 11), eta, gero, Murtzian (1.000tik 10,5). Nafarroan, berriz, nahiz han sortua izan, ez da hain ugaria. Zehazki, 1.639 pertsonak daukate abizen hori, hau da, 1.000tik 2,6k. Badirudi, beraz, Nafarroan espero baino *Navarro* gutxiago dagoela.

Datuok hispaniar erresumen historiarekin alderatuz gero, pentsa liteke Nafarroako Erresuma islamarekiko mugarik gabe geratu zenean lurraldeko herritarrak ondoko erresuma kristauen zerbitzura jarri zirela, hau da, Gaztelaren eta Aragoiren zerbitzura. Aragoiko koroak Mediterraneoako Levante birkonkistatzeari ekin zion, eta hango monarkek, gaztelarrek bezala, kon-

kista berriak zituzten lurak birpopulatzea bultzatu zuten; horregatik dago hainbeste *Navarro* Valentziako Erresumaren hegoaldean, batez ere Murtzian.

Interesgarria da *Navarro* eta *Vizcaíno* [bizkaitarra] abizenen banaketa-mapak alderatzea. *Vizcaíno*, hain zuzen, Iberiar Penintsularen ekialdean ageri da batez ere, *Navarro* baino gutxixeago betiere, eta ezaugarri ez hain definituekin. Hala ere, mendebaldeko probintzia batzuetan oso gutxi ageri da *Navarro* abizena. Gaztelaren iparraldean ez dago ez bata, ez bestea.

Datuok interpretatzean, jendeak iraganean egindako lekualdatzeak hartu behar dira kontuan. *Navarro* eta *Vizcaíno* abizenak adjektiboak dira, eta jaioterria utzitakoen jatorriari egiten diote erreferentzia. Nafarroan eta Bizkaian ez luke zentzurik izango inori era horretan deitzeak, izenen funtzioa bereiztea baita berez. Horretaz gainera, batez ere *Vizcaíno*-ren kasuan, leku jakin bati baino gehiago hizkuntzari egingo zioten erreferentzia iraganean: euskaraz mintzatuko ziren, eta herritar gehienak hizkuntza erromantzean hitz egiten zuten herrietara joan izango ziren bizitzera. Miguel de Cervantesek, adibidez, zentzu hori eman zien *Kixoten*.

Vocabulario

Errege-eskribaua: bizitza publikoko zein pribatuko gertaera garrantzitsuak idatziz jasotzen zituen langile publikoa. Adituak ziren lege-formuletan.

Leinua: arbaso komun maskulino bategandik eratorritako ondorengoen multzoa. Noblezian erabiltzen da.

Patronimikoa: pertsona-izen berezi bati dagokionez, aitaren edo beste arbaso maskulino baten izenetik eratorria. Hasieran, filiazioa edo leinu batego kide izatea adierazten zuen.

Erregistro zibila: agintari eskudunek jaiotzak, ezkontzak, heriotzak eta pertsonen egoera zibilarekin loturikoak biltzeko erregistroa.

Jarduerak

1. Galdetu ikasleei zer abizen dituzten. Esan dezatela zer abizen motak diren: oikonimikoak, patronimikoak... Bilatu dezatela zer maiztasunekin ageri diren Espainian edo jatorrizko herrialdean; horretarako, www.forebears.io webgunea erabil dezakete.
Ba al dago zure izen bereko beste inor?
2. Bilatu zer maiztasun duten gaur egun *Navarro* eta *Vizcaíno* abizenek, Estatistikako Institutu Nazionalaren webguneko datuak baliatuz.
3. Bilatu zer banaketa ageri duen gaur egun Espainiako estatuan *Erdozain* abizenak, Estatistikako Institutu Nazionalaren webguneko datuak baliatuz. Saiatu azaltzen.

Oharpenak



IV. Etxeak eta etxe-izenak

Izenak ez dira pertsonen kontua bakarrik: etxeek ere badute izena. Nafarroan, iragan hurbilean, etxeaz mintzatzeko zirelarik ez zuten eraikina soilik aipatzen, baizik eta instituzio askoz konplexuago bat.

Zer da etxea?

Lehen, espazioa antolatzeke oinarritzeko zelula zen: etxe multzo batek leku, hiribildu edo hiri bat osatzen zuen; leku multzo batek, haran bat; haranek, hiribilduek eta hiriek, erresuma. Ondasun multzo bat biltzen duen instituzioa da etxea; batzuk materialak dira (eraikina, lurrak, arbasoen hilobia...) eta beste batzuk immaterialak (auzokoen eskubideak eta betebeharrak, kontzejuan hitza eta botoa izatea, prestigioa, tradizioak, izena). Batzuetan, erresuma batekin alderatu izan da etxea, lege propioekin, eta aita, familia-burua, erresumako monarkarekin.

Nafarroako leku askotan, Aro Garaikidera arte, herrixketako –hiribildu eta hirietakoak baino gehiago– benetako subjektu soziala etxeak izan ziren. Etxeek bazuten izena, eta, normalean, izen hori ez zeterren bat etxe horretako abizenarekin. Etxe bateko biztanleak oinarritzeko eskubide batzuen jabe ziren, hala nola auzotasun-eskubidearena. Hari esker, etxejabeek eta haien familiek tokiko komunitatearen gaineko eskubide osoko kide izatea lortzen zuten, eta ondasun komunalak eskuratzeko bidea ere ematen zien, kontuan izanik halakorik gabe ezinezkoa zela pertsonak eta aziendak mantentzea. Ondasun komunalen erabilera etxe kopuruarekin lotua zegoenez, ez zen komeni kopurua handitzea, populazioaren eta baliabideen arteko oreka ez hausteko. Beraz, ezin zen etxe berririk egin herriko etxez gainera, besteek ez baitzuten onartuko eta ez baitzuen izango aurrera egiteko modurik.

Auzoko etxea ere banatu ezin zenez, seme edo alaba bakar batek hartzen zuen oinordetzan, baita haren ondasun ia guztiak ere; gainerakoei, oinorderik gabe


utzi, eta diru pixka bat ematen zitzaaien, alabei gehiago semeei baino. Oinordekoaren senideak bizi guztirako gera zitezkeen jaiotetxean, senide oinordekoarentzat lanean eta hark mantenduta, ez ezkontzearen baldintzapean. Beren kontura bizi nahi bazuten, etxea utzi beharra zeukaten, baita beren senipartea ere (hau da, etxeak ematen zizkien ondasunak), eta beren kontura lan eginez osatu seniparte hori. Sistema horren bitartez, beraz, populazioaren hazkuntza kontrolatu nahi zuten, baliabideak gainustiatu gabe, baina prezio garestia ordaintzen zuten horren truke, eta tentsio ugari sortzen ziren. Toki batean zenbat eta baliabide gutxiago egon, orduan eta zorrotzagoak ziren toki horretan bizitzeko baldintzak: Nafarroan, mendialdean aukera gutxi zegoen; hiriak eta Ebroko harana, berriz, irekiagoak ziren jende berria hartzeko orduan.

Etxe-izenak modu informal batean esleitzen ziren, pertsonenak bezala, une jakin bateko jabearen izenaren arabera, edo haren lanbidearen, herrian zeukan posizioaren edo beste ezaugarri batzuen arabera. Izenak aldatu egin zitezkeen, eta aldatzen ziren, baina oikonimoek gehiago irauten dute jabeen abizenek baino. Pertsona-izenen erregistrorik ez zegoen, eta are gutxiago etxe-izenenik, baina, dokumentuetan aipatzen direnean, oso datu baliotsuak dira ikertzaileentzat, pertsonak identifikatzeko, abizenak baino egonkorragoak izaten dira eta.

Nafarroako etxe-izenak iparraldetik hegoaldera

Etxe-izena erabiltzea oso ohikoa da Nafarroan, baina zenbait ñabardura garrantzitsu egin behar dira.

1. **Mendialdean**, oso kontu orokorra da, bai Pirinioetan eta Pirinioaurrean, baita Kantauri aldean ere. Eskualde euskaldunak dira, nahiz badioren izen mistoak ere, hala nola *Vecinobaita* edo *Aprendiztegi*. Batzuetan, oikonimoak ez dira ia aldatu XVI. mendean geroztik, baina badira XV. eta are XIV. mendeetako adibideak ere.
2. **Erdialdean eta Erriberan** ere erabiltzen dira etxe-izenak. Izarbeibarren eta Mañeruibarren egin diren ikerketetan, argi ikusten da mendetan zehar elkarrekin bizi izan zirela euskara eta gaztelania, baina XX. mendearen hasieran utzi zioten euskaraz mintzatzeari. Gaur egun, honelako adibideak dokumentatu dira eskualde horietan: *Sacristanena* (Biurrun), *Eunzalearena* (Uterga eta Adiós) edo *Casa Alberto* (Añorbe)



Bortzirietan, garbi ikusten da zer garrantzia duten XXI. mendean oraindik ere etxeak eta haren izenak pertsonak identifikatzeko elementu gisa. Etxalarren, 2003an, zera esaten zen: «Hemen, jende anitzek ez daki zein diren herritarren abizenak, baina bai etxeen izenak. Anitzi, gainera, etxe-izenaz deitzen zaio» (*Diario de Navarra*, 2003ko apirilaren 27a, 44. or.). Telefono-zerrenda abizenen arabera anto-

latu ohi denez eta ikusirik herritarrentzat ez zela erabilgarria, beste telefono-zerrenda bat osatu zuten, etxe-izenak aintzat hartuta eta etxe bakoitzaren auzoa adierazita. Horri esker, etxe- eta baserri-izenak gorde dira, eta ongi idazten ere laguntzen du etxe-izenen telefono-zerrendak.

(Iturria: Belasko, Mikel eta Colomo, Koldo, *Casas de Valdizarbe y Valdeñañeru: nombres e historia*, Iruñea, Loxa elkarte, 2014).

Ebroko Erriberan, etxeak garrantzi apalagoa izan zuen instituzio gisa. Etxe-izenak kargu edo dignitateen kasuan mantendu dira batik bat, hala nola Casa del almirante [Almirantearen etxea] edo *Palacio decanal* [Deanaren etxea], Tuteran; nobleen etxeetan, hala nola *Palacio del conde de Altamira* [Altamirako kondearen etxea], Buñuelen, edo *Casa del conde de Guevara* [Gegarako kondearen etxea], Cintruéñigon; Ebroko aduana-lerroko salgaien mugimendu handiari esker aberasturiko merkataria handien etxeetan, hala nola *Casa de los Ligués* [Liguéstarren etxea], Cintruéñigon, eta *Casa de las Cadenas* [Kateen etxea], Corellan. Kontuan hartu behar da batez ere landa-eremuan ezagutzen direla etxeak beren izenengatik; hiribilduetan eta hiri handi samarretan (hau da, Nafarroako hegoaldean) ez da hain ohikoa.

Bigarren atalean ikusi dugunez, etxe-izen batzuetatik abizen oso ezagunak eratorri dira. Etxe- edo herri-izena abizen gisa erabiltzea zoriari zor zaio neurri handi batean. Oikonimoak herritarrak ingurune hurbil batean identifikatzeko erabiltzen dira: herrian bertan edo ondoko herrietan. Baina, jaioteritik urrundu ahala, jaiotetxea ez da hain ezaguna eta ez da identifikatzaile baliagarri bat; herriaren izena, aldiz, bai, bada.

Bestalde, oikonimoek etxearen kokagunea adierazi ohi dute maiz –goiti, beheiti, eliz ondoan, iturri-bidean...–, eta, horregatik, herrien artean errepikatu ohi dira, are elkarrengandik urruti egonik ere. Ikusi dugunez, horrexegatik daude bost izen hauek Nafarroako berrogeita hamar ohikoenen artean: *Etxeberria*, *Iriarte*, *Elizalde*, *Irigoi* eta *Iribarren*.

Etxe-izenen tipologia

Nafarroan, oikonimo-ondare aberatsa gorde da. Baztan-Bidasoakoak aztertu ditugu, kopuru handia eta aldaera ugari biltzen diren heinean. Etxe-izenen erreferentzien artean, honako hauek daude (dokumentatu bezala idatzi ditugu etxe-izenak, haien kokagunea eta dokumentuaren urtea):

- **Ponte-izenak:** *Rodrigonea* (Bera, 1692), *Alonsorena* (Ituren, 1564; Lesaka, 1607), *Lopcoea* (Zubieta, 1698), *Micheltorena* (Ituren, 1533), *Cataliñenea* (Bera, 1689), *Luçiarena* (Arantza, 1592), *Mariestebanbaita* (Ituren, 1788).

- **Patronimikoak:** *Martinpericena* (Zubieta, 1660), *Juangomizena* (Lesaka, 1607), *Petrisançena* (Doneztebe, 1574).
- **Ahaidetasuna:** *Aitajorena* (Urdazubi, 1647), *Alabatoa* (Zubieta, 1638), *Amonabide* (Doneztebe, 1545), *Semetorena* (Arizkun, 1763); eta *Alargunarena* (Doneztebe, 1765) eta *Primonea* (Sunbilla, 1726).
- **Izengoiak:** *Agotena* (Igantzi, 1667), *Belcharenea* (Narbarte, 1786), *Erreguerena* (Arantza, 1621), *Galchagorrireña* (Narbarte, 1646), *Martigorrena* (Oiz, 1726).
- **Lanbidea:** *Arguinarena* (Narbarte, 1584; Elgorriaga, 1609), *Arozteguia* (Urdazubi, 1584), *Basteroreña* (Amaiur, 1697), *Damboliñena* (Saldias, 1726), *Laboriarena* (Iurita, 1694), *Sasquillenea* (Eratsun, 1726), *Sastrearena* (Zugarramurdi, 1628), *Serorarena* (Ziga, 1685), *Tornariarena* (Sunbilla, 1607; Ezkurra, 1726), *Zamarguillereña* (Amaiur, 1669).
- **Toponimikoa eta deskriptiboak:** *Calzadacoa* (Urroz, 1726), *Gamioa* (Arraioz, 1641), *Larrañacoa* (Eratsun, 1726), *Reparacea* (Oieregi, 1563), *Sorabill* (Beintza-Labaien, 1567), *Echebelzea* (Erratzu, 1748), *Sagardibelcea* (Gartzain, 1681), *Jaureguiberria* (Ornoz, 1685), *Lecueder* (Elbete, 1693), *Echezuria* (Luzaide, 1666), *Jaureguiçar* (Arraioz, 1482), *Yturaldea* (Almandoz, 1361), *Yndarteña* (Lekaroz, 1685), *Hormatea* (Azpilkueta, 1693).
- **Funtzio edo zerbitzuen adierazleak:** *Abadiabaita* (Lesaka, 1798), *Alcatechoreña* (Narbarte, 1544), *Apezarena* (Legasa, 1648; Elizondo, 1694), *Bicarioreña* (Lesaka, 1612), *Consejuarena* (Elgorriaga, 1554), *Errotarena* (Ituren, 1631), *Jaureguiberria* (Ornoz, 1685), *Ostaleria* (Urdazubi, 1560).
- **Baztan-Bidasoatik urrutiko hiri eta herriak:** *Algeçira* (Igantzi, 1633), *Cordoba* (Erratzu, 1763), *Portugal* (Bera, 1689), *Tutera* (Ituren, 1595).
- **Gaztelaniazko izen arruntak:** *Amigoreña* (Lesaka, 1569), *Cuidadoreña* (Amaiur, 1709), *Capitaneña* (Lantz, 1694), *Morenoreña* (Arantza, 1726), *Oficialenea* (Bera, 1697), *Tablagerobayta* (Bera, 1726).

Hiztegia

Ondasun komunalak: herri edo toki-entitate bati dagozkion ondasunak. Herritarrek ustiatzen dituzte.

Senipartea: legeak oinordeko jakin bati utzi eta testamentugileak askatasunez eskuratu ezin duen herentziaren zatia. Lehen, Nafarroan ohitura zenez, diru kopuru sinboliko bat izaten zen.

Auzotasun-eskubidea: Nafarroako Antzinako Erregimenean, herri batzuetan bizi ziren herritar batzuek bakarrik zeukaten auzotasun-eskubidea, eta, normalki, auzo-etxe baten jabegoari lotua zegoen. Toki-entitate batzuek trabak jarri zituzten herritik kanpokoek halako etxerik eros ez zezaten. Auzotasunak eskubide batzuen gozamina zekarren, hala nola kontzejuan edo batzarrean hitza eta botoa izatea eta ondasun komunalak erabiltzeko aukera. Halako eskubiderik ez zeukatenei herritar edo egoiliar esaten zitzaien.

Jarduerak

1. Eskatu ikasleei etxe-izenak asmatzeko: aitona-amonen etxearena, gurasoena eta ikasleena berena. Argudiatu dezatela.
2. Erreparatu marrazki honi. Herri baten udal dermioa da; zehazki, erdigune jendeztatua eta inguruko eremua. Elementuen laguntzaz (aurrizkiak...), eman izen bana etxe eta etxaldeei.

Bibliografia

BELASKO, Mikel eta COLOMO, Koldo, *Casas de Valdizarbe y Valdemañeru: nombres e historia*, Iruñea, Loxa elkarte, 2014.

RODRÍGUEZ DÍAZ, Roberto, *La población española. Aproximación a la estructura biológica, genética y poblacional a partir de los apellidos*, Salamancako Unibertsitateko Biologia Fakultatean defendituriko doktorego-tesia, 2015. https://gredos.usal.es/jspui/bitstream/10366/127985/1/DBAPEEQA_RodriguezDiazR_Poblacionespañola%20.pdf

ZABALZA, Ana (zuz.), *De Engracia a Garazi. El misterio de los nombres en Navarra*, Cizur Menor, Thomson Reuters Aranzadi, 2018.

www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_eoda&Itemid=792&lang=es&view=izenak

www.forebears.io

www.ine.es

www.navarra.es/appsext/bnd/GN_Ficheros_PDF_Binadi.aspx?Fichero=CAN00012-2000000000000000000000000000410.pdf